

# Maddi Aiestaran Iparragirre

**A** maila • 1 saria

Emakumearen aurkako indarkeria-kasuak eguneroko gertakari beltz bilakatu zaizkigun honetan, bertso-sorta bat idatzi nahi izan dut gizartearen gaitz beldurgarri hori nozitu duten emakume guztien omenez. Urte luzez eta isil-isilik bikotekidearengandik tratu txarrak jasan dituen emakume bat da bertso-sorta honetako protagonista; salaketa jartzera ausartu den unean izan dituen burutazioak papereratu ditut. Irakurlea ere, neure moduan, errealitate gordin hori bizi duten emakumeen azalean jarri nahi izan dut, bene-benetan eta irmoki gaitzesteko jokabide deitoragarri hori. Ea gustatzen zaizuen!



Doinua: Hogeigarren urtera (Amets Arzallusen moldaketa)

## AMAITU DA

1-

Desagertzear dago  
zure erresuma,  
besteak txikitze  
duzun gaitasuna.  
Nahiz nigandik ez duzun  
askorik entzuna,  
ea gustatzen zaizun  
gaurko erantzuna.  
Kanporatzeko nire  
barneko asuna,  
behingoz entzun dadila  
nire oihartzuna.  
Kanporatzeko nire  
barneko asuna,  
kontatu behar diet  
egin didazuna.

3-

Gogoan dut gaztetan  
genuen "kimika",  
elkar musukatzeko  
nolako irrika.  
Nahiz izaten genuen  
zenbait ika-mika,  
guztia zen egia,  
guztia polita.  
Baina behin hasi zinen  
ozen garrasika,  
ni txiki sentitzeko  
hamaika teknika.  
Baina behin hasi zinen  
ozen garrasika,  
eta guztia bota  
zenuen harrika.

2-

Esan didate "aulki  
horretan eseri",  
hemen daramat ia  
ordu eta erdi.  
Bi eskuetan daukat  
dardara gehiegi,  
minez zimurtu zaizkit  
bekain eta begi.  
Aurrean izan ditut  
hainbat amildegi,  
baina bizitzak beti  
ditu bi aurpegi.  
Aurrean izan ditut  
hainbat amildegi,  
orain zu erortzea  
ez al da zilegi?

4-

Nire etsipena zen  
zuretzako grina,  
kordea galdu arte  
gelditu ezina.  
Zu nire erregea,  
ni zure panpina,  
munstro handi bat zara,  
traidore zikina.  
Nahiz eta ahazteko  
egin ahalegina,  
ezabaezina da  
jasandako mina,  
Nahiz eta ahazteko  
egin ahalegina.  
zuri pozik egingo  
nizuke berdina.

**5-**

Bateko kolpe eta  
besteko iraina,  
sakona da eragin  
didazun orbaina.  
Hazi-hazi eginda  
ikararen zaina,  
gorrotoari ezin  
harturik tamaina.  
Pauso hau ematea  
kostatu zait baina,  
behingoz hartuko diot  
beldurrari gaina.  
Pauso hau ematea  
kostatu zait baina,  
hau da egin didazun  
minaren ordaina.

**6-**

“Zatoz zure zain dago  
salaketa gela”,  
segidan dantzan jarri  
da nire sabela.  
Kontatu diet nire  
bizipen krudela,  
sinatu dut zulora  
bidal zaitzatela.  
Atzean utziko dut  
minaren tunela,  
amaitu baita tratu  
gaiztoen nobela.  
Atzean utziko dut  
minaren tunela,  
amaitu da betiko  
niretzat kartzela!

# Itziar Mendia Urrutia

**A** maila • 2 saria

Kaixo! Itziar Mendia naiz, 17 urteko beasaindarra. Aurtengoa dut azken urtea Txindoki ikastetxean.

Nire zaletasunen artean irakurtzea, musika eta kirola daude. Horrez gain, bertso munduak ere asko erakartzen nau eta horregatik sari hau irabazteak asko poztu nau. Ea gustatzen zaizuen egindako sorta txiki hau!



Doinua: ETAre su-etenetik

## BERTSOAK

1-

Zorionaren iturri  
omen da ignorantzia  
egin dugun min guztia  
aspaldi dugu ahantzia  
ez da positibo izan  
inoiz gure presentzia  
urrutiko lurraldeei  
utzitako herentzia  
nabarmen da gizarte  
arteko diferentzia  
nahiz ta jakin badakidan  
handia da distantzia  
ezin inola ulertu  
gure indiferentzia

3-

10 urteko umezurtz  
baten eskuan pistola  
etxe baten suntsiketan  
zutik gelditzen den ohola  
horrenbesteren ametsak  
osten dituen kaiola  
zenbat bizitza konpondu  
ezin direnak inola  
askorentzat izaten da  
egunerokoa hola  
baina badirudi haiek  
ez zaizkigula axola  
ez da berdin hemen edo  
Raqqan isuri odola

2-

Kendu diegu bakea,  
kendu diegu indarra  
eta gero armak saldu  
dizkiegu barra-barra  
zapaltzen ditugu asez  
gure botere beharra  
estaliz haien oihua,  
isilaraziz negarra  
nahiz eta uzten diegun  
bizimodua kaxkarra  
guri ez zaigu inporta  
zer den ona zer den txarra  
negozioa da hemen  
inporta duen bakarra

4-

Sorrarazi dizkiegu  
egun triste eta grisak  
ostera ez dira hartzen  
kontuan beraien hitzak  
nahiz soilik hartu nahi duten  
hau gordeleku berritza  
ez dituztenez betetzen  
europarron baldintzak  
ez dizkiegu utzi nahi  
orain Europako giltzak  
ez al dira lotsagarri  
burututako ekintzak?  
Hesiz betez gure mugak  
eta beraien bizitzak

**5-**

Ihesi irteten dira  
duten guztia eskutan  
gerraren ondorioak  
oraindik euren larrutan  
ilusio denak sartuz  
esperantzaren txalupan  
nahiz bidean geldituko  
diren bostetik hirutan  
baina ez dute ikusten  
hau daudenak goi kargutan:  
500 hartuko ditugu  
5.000.000 utzi burrukan  
zifrak ikusten dituzte  
pertsonak dauden lekutan

**6-**

Ezer onik ez da lortzen  
hesiz mugak marraztean,  
denok berdinak garela  
estali edo ahaztean,  
bizitzari kapitalak  
lekua irabaztean,  
besteen aurretik egon  
gaitezkeela ebaztean  
arazoa konponduko  
dugu mugak eraistean  
gorpurik ez da egongo  
gehiagotan itsaspean  
jatorriak ahaztu eta  
elkarlanean hastean

# Hodei Munduate Etxeberria

**B** maila • 1 saria

Kaixo, ni Hodei Munduate, mutil Zaldibitarra naiz eta 14 urte ditut.

2003ko abenduak 24an jaioa naiz, Zaldibian eta nire familia, gurasoak eta bi arrebeekin bizi naiz. Ez dut nire burua pertsona langile bat bezala ikusten baina gauzak ongi egitea gustatzen zait baldin eta lan hori nire gustukoa bada. Txikitatik musika eta inguruko arlo guztiak ditut gustuko, horren harira bai instrumentu aldetik eta bai bertso arlotik ere zaletasun indartsuak ditut, bertsolaritza eta gitarra dira hauek. Bertsoak aspalditik ditut gustuko baina lau urte dira landu eta ikasten ditudala. Baditut gustuko bertsolari asko baina badira bi, nire begiko. Bertsolari hauek nire bertso modua ere determinatu dute euren bertsotarako umorezko modua txikitatik gustatu baitzaizkit, bi izugarrizko bertsolari hauek Agin Laburu eta Aitor Sarriegi dira. Hauen mailara iristeko asko lan egin beharko da beraz hortan jarraituko dut.



Doinua: Nafarroako mendi gainetan

## BERTSO-AFARIAK

**1 -**

Utzi bakean lehiaketa hoik  
Eta ahaztu ia guduz  
Bertso afarik egiten die  
Hori sustatu helburuz  
Nola gai hontaz ez dien egin  
Bertso gehiegi kopuruz  
Egin behar det bertso sorta bat  
Bertso afariei buruz.

**3 -**

Lasaitzekore motibon bila  
ibiliaz bilau arte  
Beste guztien herriak dira  
Oñati ta Arrasate  
Ulertu duzu zeure artean  
"Hemen daukat jake mate  
Ikusle denak Goierrikoak  
Ni soilik ulertzen naute."

**2 -**

Azaldu zera sozidadera  
berandu beti antzera  
Ikusittuzu beste lagunak  
Ta zu gazteena zera  
Atea itxi eta orduan  
Buruai gora ta behera  
Ohartu zara dagoeneko  
Ezin da bueltau etxera.

**4 -**

Bertsolariak zarete iada  
Elkarren ondon eseri  
Kantatzen hasi eta ohartu  
Zutzako dala gehiegi  
Hankak dardarka jarri zaizkizu  
eta eskuekin segi  
Lenengo nerbio kabroi horiek  
zaizkizulako ageri.

**5 -**

Etorri dira aitte ta ama  
lagun lehengusu ta maisu  
balio zuna erakusteko  
saio txukuna in nahi-zu  
Lehenaukoa ez ba zan nahiko  
beste arazo bat aizu  
mikrofonoa artzearekin  
agurra ahaztu zaizu

**6 -**

Etzea ibili haien mailan ta  
etzea ibili pareko  
Ta ze gogoa daukezun oain  
etxeraino aiatzeko  
ba-etzaiz larrittu baliokoizu  
ofizioa-ikasteko  
hurrengo baten egingo dezu  
gehiago eta hobeto.

# Uxue Iruretagoiena Andres

**B** maila • 2 saria

Nire izena Uxue Iruretagoiena da, eta 2002-ko martxoaren 7-an jaio nintzen. Aurten, nire DBH-ko azken urtea egiten ari naiz Jakintza Ikastolan.

Bertsoak sortzea nahiz entzutea gustuko izan dut beti. Hauen bidez, modu jostagarri eta labur batean mila istorio amaigabe kontatzeko aukera eduki dezakedalako.

Nik, oraingo honetan, ezaugarri hori aprobetxatuz sei bertso sortu ditut.

Zati guztiak lotuz gero, istorio baten aurrean aurkituko zarete. Izenburuak dioen bezalaxe, mundu honen beste alderdia ezagutuko duzue nire bertso hauek irakurritz gero.



## MUNDUAREN BESTEALDERDIA

**1 -**

Erlojuari begira noa  
noiz iritsiko ordua.  
Bidaia luze bat dut aurrean,  
zein izango nik patua?  
Denbora batez luxua utziz  
aldatuz bizimodua.  
Hemendik urrun lur gehiago da,  
desberdina da mundua!

**3 -**

Gaur izango dut ospitalean  
nire lehen lan eguna,  
antzematen dut giroan jada  
gaixoen gogortasuna.  
Sendagai faltek tristetzen naute,  
behar aberastasuna,  
diruak beti kontrolatu du  
hemengon etorkizuna.

**2 -**

Azkenean bai, iritsi naiz ni  
ezezaguna dut dena.  
Hainbeste urte lan eta ikasten  
merezi izan du dena.  
Orain hasten dut ibilaldia  
gogor, samingarriena  
Afrikak badu nahiko botere  
nik izango ote kemena?

**4 -**

Heriotza dut egunero nik  
hemengo etsai bakarra,  
eta honek du jendearengan  
geldi ezin den indarra.  
Bizitzen jarrai nahi duen horrek  
esperantza du sugarra,  
borroka egin dezagun behingoz  
ezarriz bizitzan marra.

**5 -**

Denek dakite Afrika hontan  
bizia dela gordina.  
Nahiz haur txikien begietan den  
beldur eta jakin mina,  
mundu honetan txotxongiloak  
izatearen berdina?  
Hau aldatzeko beharrezkoa  
gu guztion (ah)alegina!

**6 -**

Lurralde hontan utzi behar dut  
edukitako papera.  
Nahiz ni itzuli segi behar du  
hasitakoak aurrera.  
Nire oihartzuna irits dadila  
mundu luze zabalera  
horrela bada, Afrika zatoz  
gu guztion babesera!


# Khadim Sock

**D** maila • 1 saria

Kaixo:

Khadim Sock naiz. Bartzelonan jaio nintzen 2004ko urtarrilaren 3an. Bartzelonatik, Senegalera joan ondoren, Beasaina etorri nintzen bizitzera eta, iaz, Beasaindik Villabonara joan nintzen. Villabonan bizi arren, Beasain BHIn ari naiz DBH 1. maila egiten.

Nire zaletasunik handiena futbola da eta futbolari izatea gustatuko litzaidake.



## IKASLEON BIZITZA ESKOLAN

Doinua: Pasaiko Plazatik

Ikasleon bizitza  
ez da ipuina  
eskolara bidea  
sarri dut egina.  
Goizero etortzen naiz  
trenaz Beasaina  
ohean geratzea  
nahiago dut baina

Asko aspertu ohi naiz  
klase orduetan  
Gazte, Bio ta mate  
dauden egunetan.  
Nola soinketa dugun  
guk egun horretan  
gustura etortzen naiz  
astearteetan.

Eskolara etortzen  
horrenbeste urte  
ikasgairik gehienak  
dira oso kutre.  
gazteko klase luze  
eta txapen truke  
ataria bakarrik  
ipiniko nuke.

Jendeak esaten dit  
belarrietara  
Noizbait eskolan ondo  
Moldatuko zara.  
Hala ta guztiz ere  
jakizue hara:  
Ikasleon bizitza  
oso gogorra da.

# Maren Mendizabal Izagirre

**D** maila • 2 saria

Kaixo nire izena Maren Mendizabal da eta 2004-ko martxoaren 14an jaio nintzen Zaldibian. Orain Oianguren institutoan ari naiz DBH2 egiten.

Eskolaz kanpo palan eta esku- pilotan ibiltzea gustatzen zait, baita lagunekin gelditzea ere.



## MONJA ETA APAIZA

Doinua: Minberatu zaizkigu

Kaixo arratsaldeon  
Ni nago hementxe  
Monja bat ikusten det  
Nere ondon hortxe  
Nik ustet monja horrek  
Izena du Mertxe  
Ta dago arin-arin  
Dantzatzen txe-txe-txe

Monja dantzan arina  
Hau marka polita  
Baina egin nahi dizut  
Belarrira errita  
Aspaldi hontan ez zaitut  
Elizan ikusi ta  
Zer zabilta tabernan  
Otoitzak utzita

Ni oso arin nago  
baina ez nau ero  
dantzan geldituko naiz  
dagolako bero  
zerbeza edaten det  
baina zero zero  
bestela izando naiz  
dj o rapero

Sermoian zu bakarrik  
ia lo hartuan  
zertan egongo naiz ni  
lehenengo bankuan  
predikatu behar da  
jesusen moduan  
jendea dagon tokin  
ta ez basamortuan

# June Aiestaran Iparragirre

**E** maila • 1 saria

June Aiestaran nauzue, 12 urte ditut, eta Beasainen bizi naiz. 6.maila egiten ari naiz, Alkartasuna Lizeoan.

Asko gustatu zitzaidan Aitor Sarriegik Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan erabili zuen doinu berria, eta doinu horretan egin nituen bertso hauek. Gainera, abenduan, Iruñeako saioan izan nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan bere kartzelakoa, "nagusiari gin-tonica jaurti zionekoa". Hain zuzen ere, bere ateraldia baliatu nuen bertso hauek idazterakoan.

Ea gustatzen zaizkizuen!



## MENDEKUA

Doinua: Irun badaukazu zerbait (Aitor Sarriegi)

1)

Atetik sartu naiz eta  
hori zen hori piura,  
txoriak kaka egin dit  
goitik behera burura.  
Afalorduan mahaian  
ume txikien modura,  
ahizpek barre egin dute,  
gogotik nire kontura.  
Niri burla eta burla  
zebiltzan oso gustura,  
nire artean nioen  
"zuen festa bukatu da!".  
Gogoratuz Iruñeko  
Aitorren "gin-tonic" hura,  
bat-batean bota diet  
burutik behera ura (BIS).

2)

Amaren "mala letxea"  
ez zen, gero, berriketa,  
hurbildu eta egin dit  
sekulako errieta.  
Isil-isilik egon naiz  
irribarrea gordeta,  
ikaragarria baitzen  
bi ahizpatxoek kasketa.  
Nahiz eta modu okerra  
hautatzen dudana tarteka,  
tortilLari beti eman  
behar omen zaio buelta.  
Beraz, gaizki egin arren,  
ez naiz jarriko erreta,  
ahizpen tonto-aurpegiak  
merezi izan du-eta! (BIS)

# June Lopez Ferro, Irene Manzano Errasti Naroa Arregi Etxezarreta

**E** maila • 2 saria



Irene, June eta Naroa gaituzue. Bertso hau hirurok batera egin genuen. Beasaindarrak gara eta aurten hirurok 12 urte beteko ditugu. Alkartasuna Lizeoan 6. Maila amaitzen ari gara.

Naroari eskulanetan aritzea gustukoa du, eta Ireneri eta Juneri berriz kirola egitea.

Lagunak garenez, oso ondo pasa genuen bertsoak egiten eta poz handia sentitu genuen sari hau eman zigutenean.

## SUKALDARI TRAKETSA

Doinua: Ama begira ezazu

Sukalde lehiaketa  
behar du irabazi.  
Epaileak etorri ta  
Izerditan hasi.

Kazuelara bota du  
olio tantan bat.  
Tipulina ta gero  
dator ur pixkat bat.

Patatak garbitu ta  
zuritu ere bai.  
Moztea falta zaio  
gure "chef" apartai.

Zartagia berotu  
jana botatzeko  
Hamarrean jarri du  
ondo berotzeko.

Kazuelako guztia  
erre zaio jada.  
Sukaldeko lanetan  
desastre hutsa da.

Letxuga labean ta  
purean sardinak.  
Tortillan jarri ditu  
patata gordinak.

Labana ta sardeska  
baita zartagina.  
Ziprizzinez ederki  
utzi du zikina.

Hankaz gora utzi du  
sukalde guztia.  
Epaileek zeroa  
jarri dio ia .

# Unax Madina Irastorza

**E**maila • Aipamena

Kaixo, ni Unax naiz eta 11 urte ditut. Beasaingo Andramendi ikastolako 5.mailako ikaslea naiz. Nik oso gustuko ditut; esku pilota, futbola, gehienbat familiarekin jolastea eta bertsoak , noski,!

Lehenengo aldia da aipamena lortzen dudala, eta oso pozik nago. Nire bertsoa Txokoan izena du eta niri asko gustatzen zait.



## TXOKOAN

Doinua: Ama begira zazu

Pilotariak dira  
ospetsuak hemen  
pilotak jotzen eta  
tantoak egiten.

Tantoak egin eta  
jendea txalotzen  
eta pilotariak  
frontoia eskertzen.

Iruñako Labriten  
ze partidu ona  
sasoi onean dago  
Aimar Olaizola.

Artekariak kantuz  
urdin edo gorri  
giro ona da orain  
frontoian nagusi.

# Ibai Zabaleta De Benito

**E**maila • Aipamena

Ibai Zabaleta naiz. Hamar urte ditut eta Alkartasuna Lizeoko LH 5A gelako ikaslea naiz. Bertsolaritzaz gain beste zaletasun batzuk ere baditut, euskal dantzak eta musika hain zuzen ere.



## IÑAUTERIKO JAIAK

Doinua: Ama begira ezazu

1

Iñauteriko jaiak  
guztitan onenak  
mozorro ederrez ta  
apaingarriz denak.

2

Astelehenean goaz  
denok Tolosara  
karrozak omen dabiltz  
hona eta hara.

3

Eskolan baita ere  
mozorrotzen gara  
ta Mielotxin erreta  
guztiok festara.

4

Azken egunerako  
guztiok tristuraz  
baina festak ederki  
aprobetxatuaz.